



BARREN

TOKIKOM

Sagarraren gozoa

Asier Lizarralde eta Ane Munin





Hortzak zuritzeko sustapen berria!
%15eko beherapena hortz protesietan,
apirilaren 31 arte

Kontsultatu zure hortz protesientzako
aukera ezberdinak edo jaso hortzak zuritzeko
tratamenduen inguruan behar duzun informazio guztia.

943 366 377



ANE KORTABERRIA

Ikasle ekintzailea

Gure osasuna, gure burua

ez naiz horretaz jabetu pertsonalki markatu didaten hainbat egoera bizi izan ditudan arte.

Ez da ohikoa izaten gai hauetaz hitz egitea, askotan ez dugulako jakiten pentsatzen dugun hori nola islatu. Gainera, hanka sartzeko beldurra izaten dugu maiz eta aurreitutz josita egoten gara.

Haurrak ginenetik, gizarteak balioan jarri ditu tituluak eta nota onak, arrakastaren biderako ardatz nagusi bezala, baina non geratzen da norberaren emozioak eta besteenak ezagutzeko eta kudeatzeko gaitasuna? Arlo akademikoan, esaterako, emaitza onak lortzeko gaitasuna izan arren, estresa eta tentsioa kudeatzeko beharrezko gaitasunik ez badugu, nola lortuko dugu nahi ditugun helburu horietara iristea?

Honekin ez dut esan nahi aurrez aipatutakoak ez duela garrantzirik, baina indarra bietan jarri beharko genukeela uste dut, orain arte orokorrean egin ez dugun bezala.

Ni ez naiz gai honetan aditua eta asko dut oraindik ikasteko, izan ere, aztertu dudana gaitatik eta bizitako gaitatik iritsi naiz ondorio hauetara. Hori dela eta, ziur nago, gai hau lehenago landuko banu, hainbat egoera zailei aurre egiteko gaitasun handiagoa izango nukeela.

Beraz, kostatzen zaidan arren, gairan inguruan naturaltasun gehiagoz hitz egiten eta nire burua gehiago ezagutzen ahaleginduko naiz. Zuei ere, nahi izanez gero berdina egitera gonbidatzen zaituztet, ziur gauza interesgarriak aterako direla-eta!

Zein erreza den ondo egotea eta zein zaila gaizki egotea. Azken urteetan aldaketak asko ugaritu dira nire bizitzan, baita inguruan ere eta horrek, atzera begiratu, bizi izan ditudan hainbat egoera beste perspektiba batetik begiratzeko aukera ematen dit.

Laburtuta, buruko osasunak errendimendu pertsonalean eta akademikoan eragin zuzena duela konturatu naiz, eta bistan dagoen gauza bat dirudien arren,

“Haurrak ginenetik, gizarteak balioan jarri ditu tituluak eta nota onak, baina non geratzen da norberaren emozioak eta besteenak ezagutzeko eta kudeatzeko gaitasuna?”

BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Berkhalaizaren Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloea Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edune Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ OHARRA

Iritsi dira Aste Santuko oporrak BARREnera. Datorren barikua Ostiral Santua denez, ez dugu BARREN astekaririk argitaratuko. Hurrengo zenbakia, beraz, apirilaren 9an jasoko duzue.

BARREN

▶ ABERRI EGUNA

Apirilaren 4an ospatuko dugu Aberri Eguna. Aurten ere gure balkoietan ikurrinak jartzea Aberri Eguna aldarrikatzeko modu bat izango da. EH Bil dutik gure aletxoak jarri nahi dugu Aberri Egunerako atxikimendu publikoa ahalik eta jendetsuena izan dadin, eta, horretarako, ikurrinak lortzea erraztu nahi dugu, 5 euroren truke salgai jarritz. Lortutako diru guztia epaileen erabakiz azken urteotan jasotako udal laguntzak itzuli behar dituzten preso senideei emango zaie.

Ikurrina erosi nahi duzuen guztiok bi bide dituzue:

◆ Telefonoz/whatsapp bidez, 618 680 940 telefonora deituz edo ida-

tziz, eta arreta emango dizuen lagunarekin erositako ikurrina nola jaso eta ordainduko duzuen adostuz.

◆ Salmenta-postuaren bidez: martxoaren 26an, ostirala (18:00etatik 20:00etara), eta martxoaren 27an, larunbata (12:30etik 14:30era), jarriko dugu salmenta-postu bat Kalegoen Plazan.


Gora Aberri Eguna! Gora Euskal Errepublika!

EH BILDU ELGOIBAR

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datorren eskutitzik argitaratuko.




LAGUNAK
colchoneria textil hogar


SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com
943 744 457

QUERCUS NATURE LASTAIRA

100%ean material naturalez sortutako lastaira, guztiz ekologikoa, atsedeen bete hartzeko.

Proba itzazu etxe bereko kotoizko edredoi nordikoak, guztiz material naturalekin egindakoak.







Iñaki Cendoya Aramendi

2021eko martxoaren 21ean hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



200 bat herritarrek parte hartu dute Mendaroko bono kanpainan

Mendaroko Udalak 2020ko Berraktibazio Planaren bigarren fasea jarri zuen abian azaroan, eta orain, merkataritza eta ostalaritza suspertzeko eman dituzten laguntzen errepasoa egin dute. Udaletik azaldu dutenez, 18.000 euroko inbertsioa egin dute bi laguntza lerroren bidez. Batetik, jatetxe eta tabernei zuzendutako dirulaguntza zuzenak eman dituzte. Establezimendu bakoitzeko 1.000 euroko zenbateko finkoa eman du Udalak, eta guztira 10.000 euroko partida izan da. Bestetik, establezimementuentzako II. kontsumo-bono kanpaina jarri zuten martxan. 8.000 euroko inbertsioa eginda, 400 bono kaleratu zituzten. Bono sistema 2020ko abenduaren 14tik 2021eko urtarrilaren 30era egon zen martxan. Guztira hamabi dendak eta lau zerbitzuz hartu dute parte. Bakoitzari 40 bono txartel banatu zizkion Udalak. 200 herritar inguru izan dira bonoen onuradun. Herritarrek 30 euro gastatzeko bonoaren truke 20 euro ordaindu dituzte. Udalak jakitera eman dituen kalkuluen arabera, 18.300 euroko salerosketak egin dira epe horretan Mendaroko merkataritzan.

Pandemiak eragindako osasun eta gizarte ondorioak leuntzeko hartutako hainbat ekimen eta neurriren berri ere eman du Udalak. Berraktibazio Planaren bi fase burutu dituzte, 120.000 euroko inbertsioa orotara. Ondorengo alorretara bideratu dute dirulaguntza hori: ongizatea, merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sustapenera eta Covid-19ari negozioko egokitzeko laguntza-lerrora. 2021eko aurrekontuetan, berriz, Covid-19ari aurre egiten jarraitzeko partida bat zabaldu du Udalak, unean-uneko neurriak hartzen jarraitzeko.

Elgoibarko Udalak 168.000 euroko dirulaguntza emango die herriko ikastetxeei

Bizitzarako prestakuntza euskaraz programaren barruan, ia 168.000 euroko dirulaguntza emango die Elgoibarko Udalak herriko ikastetxeei, 2020/2021 ikasturtean hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko. Eguaztenean sinatu zuten hitzarmena eta ekitaldian ondorengoek parte hartu zuten: Ane Beitia alkateak, Maialen Gurrutxaga Euskara eta Gazteriako zinegotziak, Jabier Larrañaga Elgoibar ikastolako zuzendariak, Raquel Agirre Herri Eskolako zuzendariak, Iñaki Odriozola Arreiturre Institutuko zuzendariak, Jose Mari Beristain MEKA Lanbide Eskolako zuzendariak, Ixaka Egurbide IMHko zuzendariak eta Imanol Basagutxibeaskoa EPAko zuzendariak. Hona hemen ikastetxeek jaso dituzten dirulaguntzak. Herri Eskola (27.232,25 euro), Institutua (18.592,29 euro), Ikastola (47.120,68 euro), Meka (10.365,63), IMH (63.546,94 euro) eta EPA (900 euro).



Gizon bat atxilotu zuten zapatuan udaltzainek Basarten, lapurreta saio bat leporatuta

Gizon bat atxilotu zuen Udaltzaingoak zapatuan Basarten, Ambulancias Gipuzkoa S. Coop. enpresaren basean ustez lapurretan ari zela. Ambulancias Gipuzkoa S. Coop. enpresak bi base ditu Elgoibarren: P.M. Mugurutzan bat eta Basarten bestea. 24 orduko zerbitzua eskaintzen dute bietan eta 30 bat osasun langilek egiten dute lan. Joan den zapatuan abisu bat jaso zuten, Elgoibarko bizilagun bati osasun-arreta emateko eta Mendaroko Ospitalera eraman zuten anbulatuzian. "Tranpa bat zela uste dugu, ez zela benetako osasun larrialdia. Mendarotik itzuli ginenean Basarteko baseko atea behartuta zegoela ikusi genuen eta bizilagunek ohartarazi ziguten barruan gizon bat zegoela oraindik. Udaltzainei deitu genien eta segituan etorri ziren. Guri zein udaltzainei mehatxuekin eta irainekin egin zigun aurre, eta kostata, baina atxilotu zuten. Gure motxilak eta arropak sakabanatuta eta telebista eta larrialdietarako erabiltzen dugun irratia bere lekutik aterata topatu genituen", azaldu dio BARRENI anbulantzia enpresako behargin batek. Jasandako kalteengatik, mehatxuegatik eta irainengatik enpresak salaketa jarri duela azaldu du, eta langileek bizi duten "babesgabetasuna" salatu. Langileak esan du langileak "ikaratuta" daudela eta defentsarako gailuak erostea eta aterako txakurra hartzea aztertzen ari direla ere. Ez direla guztiz seguru sentitzen diote. "Indarkeria erabilita lapurreta egin, autoritateei aurre egin, mehatxuak, irainak... eta hala eta guztiz ere domeka eguerdian, 24 ordu pasa aurretik, berriro kalean zegoen. Gainera aurrekariak ditu", salatu dute. Ertzaintza kasua ikertzen ari da.

Errotaberriko eskailera mekanikoen partez igogailua jarriko dute, irisgarritasuna hobetzeko

Martxoaren 14az geroztik itxita daude Errotaberriko eskailera mekanikoak, matxura baten ondorioz, eta Elgoibarko Udalak jakinarazi du eskailera horiek kendu eta igogailua jarriko duela. Elgoibarko Udaletik jakitera eman dutenez, 2019-23 Legealdi Planean jasotako proiektua da hau, udalerriko auzo guztietako irisgarritasuna hobetzeko eta bermatzeko estrategiaren barruan jasota. Proiektu hori 2022an egitea aurreikusten zuten, baina "egoerak behartuta" proiektua aurreratzea erabaki dute. Arduradunek esan dute eskailera mekaniko hauek arazo tekniko asko izaten dituztela, eta gainera, zaharkituta daudela. Orain dela 17 urte jarri zituzten eskailera ho-



riek, eta gaur egun matxurak konponetzeko piezak aurkitzeko zailtasunak dituztela azaldu dute, eta konponduta ere, ez duela bermerik ematen. Hori dela eta, proiektua apirilean abiatuko dute,

eta ondo bidean, obrak 2022ko hasieran egingo dituzte. Bostpasei hilabeteko lanak izango direla esan dute Udaletik eta agindu dute epealdi horretan auzorako irisgarritasuna bermatuta egongo dela.

"Zentzuzko prezioak" dituzten gazteentzako alokairuak nahi ditu Mendaroko EHBilduk

Azkeneko hamarkadetakako etxebizitza politikari "negargarria" iritzi dio Mendaroko EHBilduk, eta horregatik, gazteen emantzipazioa lagunduko duten ekimenak "ezinbestekoak eta premiazkoak" direla uste du. Horien artean Udaletik kolektibo horri etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzeko neurriak aipatu ditu. Horren harira esan dute etxebizitzaren gehieneko alokairua 550 euroan ezartzea proposatu zutela EHBildutik, baina muga hori 700 euroan ezartzekoa duela udal gobernuak, kopuru horren inguruan "negoziatzeko tarte handirik utzi gabe". Gehiegizkoa iritzi dio EHBilduk 700 euroko kopuruari: "Gure ustez, muga hori ezarrita, dirulaguntzak etxejabeentzat lirarteke gehiago emantzipatu nahi duten gazteentzat baino; ez bakarrik gehiegizkoak iruditzen zaizkigun prezioak legitimatzeko balio dutelako, baita, praktikan, alokairuaren prezioa igotzen lagundu dezaketelako ere". Horregatik, atzoko osoko bilkuran abstenitu egingo zirela aurreratu zuten. "Bada garaia, etxebizitza pertsonen oinarrizko eskubide bezala onartzeko bidean urratsak emateko", jaso zuten eguaztenean zabaldu zuten prentsa oharrean.

Mendaroko PSE-EEK aurkeztutako ekimenez "jabetzea" aurpegiaratu dio Mari Jose Telleria zinegotzi sozialistak EAJri

Komunikabideetan PSE-EEK eginiko proposamenak eurenak balira bezala saldu izana leporatu dio Maria Jose Telleria bozeramaile sozialistak Mendaroko Udal Gobernuari. Sozialistek aurkeztutako ekimenez "jabetzea" aurpegiaratu dio: "Gure taldeak legengintzaldi honetako bi ekitalditan aurkeztutako ekimenak, udal-aurrekontuetan abstentzioaren truke onartu zirenak, bereganatu egin ditu gobernu-taldeak eta hedabideetan bereak izango balira bezala saltzen ari da. Harrigarria da alkateak proiektu horien inguruan egiten duen defentsa, PSE-EEK proposatu behar izan zituenean, alkateak ez zuelako ekimenik izan". EAJk hedabideetan aurkeztutako zenbait proiektu aipatu ditu Telleriak: herrigunea eta ospitalea lotzeko igogailua eraikitzeko proiektua, landa-bideetako inbertsio-partida handitzea, eta gazteei etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko ekimena. Horietan ez dutela euren lana aintzat hartu dio. Era berean, Berdintasun Plana edo negozio berriak abian jartzeko laguntzak ere euren eginiko proposamenetatik abiatuta kudeatu direla nabarmendu du, eta salatu du gobernu-taldeak ez duela nahi hori inork jakiterik.

Zarataren aurkako pantailak abuztuaren amaierarako jarrita egongo direla aurreratu dute Aldunditik

Aintzane Oiarbide Bide Azpiegiturako diputatuak AP-8an pantaila akustikoak jartzeko egiten ari diren obrak bisitatu zituen joan zen astean, eta aurreratu zuen abuztuaren amaierarako jarrita egongo direla. Oiarbidek azaldu zuen lan honek Gipuzkoako Foru Aldundiak errepideetako zarataren aurka egindako ekintza planean duela jatorria: "Eremu horretan egindako zarata-azterketaren arabera, 2.000 pertsona inguru daude gaueko ordutegian 55 dezibelio baino gehiagoko zarata-mailaren eraginpean. Egunean zehar, Elgoibarko Ikastetxea eta Elgoibar Arreiturre BHI bezalako eraikinek 60 dezibelio gainditzen dituzte. Pantailak jartzeak Erretsundi, Basarte, Arregitorre eta San Roke kaleko eta Errotaberri auzoetako bizilagunen bizi-kalita-



tea nabarmen hobetuko du", zehaztu zuen. Diputatuarekin batera, Elgoibarko alkate Ane Beitia eta Bidegiko zuzendari Alfredo Etxeberria ere egon ziren bisitan, eta besteak beste, Elgoibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru

Aldundiaren arteko lankidetzaren nabarmendu zuten. Bisitan zehar esan zuten herrigunearan ere, Elgoibar gurutzatzen duen N-634 errepidean, kutsadura akustikoa murrizteko neurriak hartzea aztertzen ari direla.

7.150 euro eman zien iaz Elgoibarko Udalak berdintasunaren alde ari diren elkartei

Elgoibarko Udalak 7.150 euro bideratu zituen iaz berdintasunaren alde lan egiten duten herriko elkarteetara. Udalak adierazi duenez, genero berdintasuna sustatzea da dirulaguntza horien helburua, "Elgoibar berdintasunean eraiki eta guztiontzat herri atsegina eta segurua izan dadin". Bi dirulaguntza lerro atera zituen Udalak: bata emakumeen elkarteentzat eta bestea berdintasunaren arloan lan egiten duten herriko elkarteentzat. Besteak beste, 1.150 euroko dirulaguntza jaso zuen Ongarri Zine Klubak, film proiektio feministetarako. Era berean, Haizea Emakumeen Kultur Elkarteak eta Loreak Emakume taldeak 3.000na euro jaso zuten, ahalduntze feministak eta gorputz ikusezinak programak gauzatzeko.

Kiroldegiaren ondoan igogailu publiko bat eraikitze lanak hasi ditu Udalak



Olaizaga kiroldegiaren eta igerilekuak handitzeko egiten ari diren eraikin berriaren artean igogailu publiko bat ipiniko dute, San Roke kalearen eta Olaizaga kiroldegiko aparkalekuaren arteko oinezkoen lotura hobetu eta irisgarritasuna bermatzeko. Udalaren asmoa da datozen hilabeteotan eraikuntza lanak esleitzea eta obrak hastea. Ondo bidean, sei hilabete epean prest izatea aurreikusi dute udal arduradunek. Igogailuaren eraikuntza lanen lizitazioa lehiaketa publiko bidez egingo dute, eta 264.856,28 euroko aurrekontua izango du. Igogailuaz gainera, eskailera berriak ere eraikiko dituzte, eraikin berriaren aurrealdean.

► Herri barruko autobus zerbitzua mantenduko du Udalak, baina, orain, bidaia bakoitzeko euro bat kobratuko dute

Urazandiko igogailuaren obrak iraun bitartereko jarri zuen Udalak herri barruko autobus zerbitzua martxan, irisgarritasuna eta herritarren mugikortasuna bermatzeko. Epealdi horretan autobusak izandako "harrera ona" ikusita, baina, autobus zerbitzua mantentzea erabaki dute orain. Udaletik emandako datuen arabera, azaroaren 2tik martxoak 13ra 11.961 erabiltzaile izan ditu zerbitzuak; eguneko, batez beste, 109 bidaia.

Zerbitzua mantentzeaz gain, hainbat hobekuntza egingo dituztela aurreratu dute: Basarte-Erretsundi, Urazandi eta Meliton batuko ditu zerbitzuak, eta geltoki berri bat izango du Errotaberrin, bertako igogailua ezarri artean. Basarten izango du geltokia, Skate Parkearen alboan.

Urte osorako zerbitzua

Udalbusa erabilgarri egongo da urte osoan zehar, astelehenetik zapatara, ondorengo ordutegian: Astelehenetik barikura, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan 10:00etatik 13:00etara. Larunbat arratsaldeetan, igandeetan eta jaieguneetan ez da zerbitzurik izango eta abuztuan, halaber, goizez bakarrik eskainiko da, jaietako astean izan ezik: egun horietan zehar, zerbitzua goiz zein arratsalde zehar egongo da erabilgarri. Era berean, Gabon, Gabon Zahar edota horrelako jai egun berezietan aldaketa puntualak egon daitezkeela aurreratu dute.

Bidaia euro batean

Orain arte doakoa zen autobus zerbitzua, baina aurrerantzean bidaia bakoitzak euro bateko prezioa izango du, (adineko eta ezinduentzako %50eko deskontuarekin). Ane Beitia alkateak nabarmendu du apustu "oso garrantzitsua"



Josu Arraiz, Ane Beitia eta Maialen Gurrutxaga, Urazandin.

egin duela Udalak zerbitzu honekin: "Inbertsio nabarmena da elgoibartar guttien ongizaterako. Elgoibarri, duen biztanleria kontuan izanda, ez dagokio herri barruko autobus zerbitzua izatea, baina Udal Gobernuak herri osoaren eta bereziki, auzoen alde egin du apustu Udalbusarekin". Gogoratu du bidaia bakoitzaren batez besteko kostua 2,5 eurokoa dela, eta beraz, Udalak bere gain hartuko duela kostuaren %60.

15 plazako autobusa izango da, eta gurpildun aulkian daudenentzako ere egokituta egongo da.

Era berean, auzoetako mugikortasuna hobetzeko eta auzotarrak era ero-

soan herri erdigunera gerturatzeko helburuarekin, Eulogio Estartako (Sigma) etxebizitzak, San Pedroko etxeak, Arriaga auzoa eta Altzola zeharkatzen dituen lurraldebus zerbitzuaren prezioak 3. tarifa jartzeko proposamena luzatu dio Udalak Gipuzkoako Garraio Agintaritzari. Honela, Elgoibarren hasi eta bukatzen diren bidaiak prezio apalagoan egin ahal izango dituzte herritarrek.

Herri barruko autobusaren zerbitzua esleitzeko lizitazioa martxan da dagoeneko. Bi urterako kontratua izango da eta gehieneko aurrekontua urteko 70.000€koa izango da (BEZ kanpo).



Euskal kulturgintzako erreferente nagusiak dagokien kultur alorrarekin lotzen jardun ziren gazteak tailerrean.

Mendaro, udalerrri euskalduna?

‘Euskaldunon arnaguneak eta udalerrri euskaldunak’ izeneko tailerra eman zuen martxoaren 12an Ibon Aginaga UEMAko teknikariak Mendaroko gaztelekuetan. Udalak antolatutako saioa, eta DBH1eko dozena bat gazteek parte hartu zuten.

- AINARA ARGOTIA -

Bariku iluntzea da eta Gaztelekuo regeatoi doinuak apartetik entzun daitezke Garagartzan. “Belaunaldi bakoitzak bere ezaugarriak ditu”, bota dio amama eginda dagoen emakume batek guraso gazteago bati Gazteleku paretik igarotzean. Eskailerak igo, eta dozena bat inguru gazte daude atarian. Bada burrunba inguruan. Proiektorea zuzentzen ari dira barruan Ibon Aginaga UEMAko teknikaria eta Urtzi Lamariano Gaztelekuo hezitzailea. Ez daude bakarrik. Pareko besaulkian sei-zazpi mutil daude, nor bere sakelako telefonoari begira, eta gela-hondoan, hamar bat laguneko taldea - bat ez beste guztiak neska - dantzan ari da. Batbatean musika aldatu dute. *Suziri bi baino ez gara gu bata bestien aurrien. Melodi bat entzuten da urrunien...* Koreografia zaindua dute, eta ozen ari dira kantuan gazteak Gatiburen *Aske maitte*. Kantua bukatu zain egon dira arduradunak borobilean jarrita dituzten aukietan esertera gonbidatzeko. Mendaroko Udalak eskatuta etorri da Aginaga, herriko euskara ezagutza eta erabilera datuen berri eman eta gazteen euskaldun kontzientzietan eragitera.

Euskaltzale guztien ahotan dabil gazteen euskararen erabilera. Euskarari muzin egin diote gazte euskaldundu askok, eta euskaraz jarduten direnek gero eta traketsago egiten dute gainera. Hala ohar-tarazi zuten iaz, esaterako, Mintzola Ahozko lantegiak eta Udako Euskal Unibertsitateak. Esan zuten ahozkotasan izugarritzko arazoak dituztela ikasleek euren ideia eta sentimenduak nahiko litzuketen moduan adierazteko, eta beraz, ezinbestekoa dela ahozkotasan nari zentralitatea ematea hezkuntzan, horrek eragin zuzena duelako gero gazte horiek egingo duten hizkuntza hautuan. Eta erabileraren inguruko kezka hori badu UEMAk ere. Eta ez alferrik, euskararen kale erabileraren 2016ko neurketak datu kezkarriak azaleratu zitue-

lako gaur saiora gonbidatu dituzten gazteen adin tartean (ere). 12 urtekoak dira tailerrera batu direnak, eta kale neurketa haren arabera, euren adin-tartean, 2 eta 14 urte bitartekoenean, %44,10ek baino ez dute egiten euskaraz Mendaron. 15 urtetik 24ra arteko multzokoa portzentajea are da larriagoa, eskandalagarria izaterainokoa: %9,80. Baina horrez gain, euskara lehen hizkuntzatzat dutenen kopuruak, etengabe egin du behera Mendaron 1991az geroztik (%70,1etik %47,82raino) eta etxeko hizkuntza euskara dutenen kopuruak erdira egin du ordutik.

“Zuek erdaraz egiteko ohitura izatea ez da kasualitate hutsa. Askotan pentsatzen dugu geuk erabakitzen dugula, baina gure erabaki horretan beste faktore askok ere eragiten dute: zein musika entzuten dugun, zer irakurtzen dugun, zer erraztasun...”, hasi du saioa Aginagak. Barre txiki artean ari dira gazteak euren artean. Barikua da, eta heldu askok baino lanaldi luzeagoa izan dute haietako batzuek, eskola orduei eskola orduz kanpoko jardueretan eman dituztenak gehituz gero. Arina izan behar du tailerrak, asteburu gosez direnen atentzioa bereganatuko bada, eta galdera-erantzunen jokoa hasi du gidariak. Asmatu du. Munduko hizkuntzen artean euskarak zein leku betetzen duen galdetu die, zenbat hizkuntza dauden munduan, zenbat European, eta zenbat euskal hiztun gauden munduan. Sobera handi eta indartsu izan ez arren, uste dugun bezain txikiak eta ahulak ere ez garela ohar-tarazi nahi die Aginagak. Munduan, 7.000 bat hizkuntza daudela azaldu die, eta horrekin lotuta, kontuan hartzeko bi datu eman dizkie: hizkuntza horien %4 munduko hiztunen %96k hitz egiten dutela eta hamabost egunean behin hizkuntza bat galtzen dela munduan. Eta euskara arriskuan ikusten ote duten galdetu die gero gazteei. Oraingoan ez dute zalantzarik eta



DATU AIPAGARRIAK

ahobatez erantzun dute: "Bai". Euskal hiztunen inguruan galdetu die orduan. "Zenbat gara munduan?". "Asko ez", diote gehienek, baina *Vascos por el mundo* saioa aitatu du bakarren batek, iradokiz lagunek uste dutena baino euskaldun gehiago izan behar garela derigor munduan. Eta zuzendu dio lagunak: "Bai, baina euskaldunak galdetu du!", euskalduna izatea eta euskal herritarra izatea bi gauza direla gogoraraziz. Eta hasi dira nork lehenago asmatu jokoan. Ezustean harrapatu ditu erantzunak: "Milioi bat".

Erdararako joera dute gazteek euren artean ari direla, eta euskarazko jardunean ere, erdal makuluak eta moldeak sarri erabiltzen dituzte. Eta hala ari direla Maialen Lujanbiori behinola Elgoibarren entzundakoaz gogoratu da kazetaria: "Euskaldunik euskaldunenari ere esaldi egin horiek hain barruraino sartu bazaizkio, mundu erreferentzial guztia gaztelerazkoa dugulako da, eta esaldi horiek milioi bat aldiz entzun ditugulako. Beraz, landu egin behar dugu hori. Landu, dauden lekuetatik hartu eta sozializatu egin behar ditugu euskarazko klitxeak". Gazteek ere onartu dute erdal moldeak naturaltasunez erabiltzen dituztela. Are, ikastolakoak amaitu eta ikastera Elgoibarrera etorri direnetik gaztelaniaz gehiago egiten dutela esan dute. Dinamizatzailearekin komunikatzeko, baina, euskara darabilte. Euskararen ofizialtasunaz, Nafarroako hizkuntza zonifikazioaz, euskarak garai batean hartzen zuen eremu zabalaz jardun zaie gero Aginaga, bai eta euskararen normalkuntzan izan diren mugariez ere. Ezaguna egiten zaie hori dena gazteei. Euskara debekatuta egon zen garaiak gogorarazi ditu taldekideetako batek; etxetik zaio eza-guna kontua, baina eskolan sakondu dute. "Euskararen historian ikasi dugu", dio. Eta baliatu du aukera Aginagak, errespetuaz hitz egiteko. "Errespetu falta iruditzen al zaizue euskaraz egin ez arren, dena ulertzen duenari euskaraz egitea?". Ezetz diote gazteek. Elkarrizketa elebidunak normalduta dituzte.

Hizkuntza normalizatua al da euskara?

Nolanahi ere, euskara gaur egun normalizatuta ote dagoen galderari ez dakite zer erantzun. Baietz uste dute askok; ezetz dio bakarren batek. Eta galdera egin die Aginagak, oharkabean pasatzen diren detaileez ohartarazteko. "Ia, telefonoak zein hizkuntzatan daukazue? Zein hizkuntzatan daukazue konfiguratuta zuen ordenagailu eta gailuak?", galdetu die. Batek ez beste guztiek gaztelaniaz dituzte; bakar horrek ingelesez. Abizenetan 'z'-rik baduten galdetu die gero. Badira batzuk: Zabaleta, Arrizabalaga... Euskal grafiaz idazten dituzten arren, erdaraz ahoskatu dituzte gazteek. Kanpo eraginez ohartarazi nahi die, eta normala ez dena zein naturaltasun handiz ikusten dugun: "Euskal Herrian lasai bizi daiteke bat, euskararik jakin gabe ere, eta guk onartuta dugu".

Ohartarazi nahi die euskararen erabilerak azkeneko urteetan Mendaron izan duen apaltzeaz. Erreparatu dituzte azkeneko kale neurketako emaitzak eta zer pentsatua eman die gazteei. "Banekien askotan egiten dugula gaztelaniaz, baina ez nuen uste horren euskara gutxi egiten genuenik", dio gazteetako batek. Euskaraz bizi direnei erreparatzeko eskatu die Aginagak jarraian, eta herrian eta herritik kanpo erreferentzetat dituztenak aipatzeko. Juani Loiola aipatu

♦ **Hizkuntzak munduan:** Munduan 7.000 hizkuntza inguru mintzatzen dira. Horietatik 250 bakarrik iristen dira milioi bat hiztun baino gehiago izatera, eta 10 milioi hiztunetik gora dituzten hizkuntzak 60 baino ez dira.

♦ **Euskara munduan:** Euskarak milioi bat hiztun ditu, eta Oitk 10erako eskalan, 8tik 10erako tartean dago.

♦ **Hizkuntzak Europan:** 234 hizkuntza hitz egiten dira Europan. Europa da alde handiz (etorkinen hizkuntzak aintzat hartu gabe) hizkuntza gutxien duen kontinentea. Munduko hizkuntzen %3 besterik ez da hitz egiten Europan.

♦ **Eleaniztasuna:** Mundua askotarikoa da hizkuntzei dagokienez. Zatiirik handienean jendea hizkuntza bat baino gehiago mintzatzen den komunitatean bizi da. Elebakartasuna salbuespena da.

♦ **Hizkuntzen galera:** UNESCOren arabera, hizkuntzen %43k ez dute bermatuta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa. Horregatik, galtzeko arriskuan daude. Izatez, bi astetik behin hizkuntza bat hiltzen da munduan.

♦ **Euskara ezagutza Mendaron:** Mendaron hamar lagunetik zazpik dakite euskaraz, %70,7k, baina erabilerara askoz da apalagoa. %39,35ek bakarrik berba egiten dute euskara etxean, 2016ko neurketaren arabera. Datuek nabarmen egin dute okerrera.

dute denek ahobatez, Mendaroko lehenengo andereñoa izandakoa. Erreferenteen gaia atera nahi die Aginagak, erreferenteek hizkuntza-biziberritze prozesuetan eragiteko duten eraginagatik, eta jolasaren atariko gisa planteatu die galdera. Euskal kulturgintzako dozenaka sortzailearen argazkiak erakutsi dizkie jarraian eta bakoitza dagokion kultur arloarekin lotzeko eskatu: Uxue Alberdi, Miren Narbaiza, Benito Lertxundi, Pello Reparaz, Anari, Andoni Egaña, Bernardo Atxaga, Eñaut Elorrieta, Arantxa Urretabizkaia, Aitziber Garmendia, Maialen Lujanbio, Aiora Renteria, Elena Irureta, Itziar Ituño, Lourdes Iriondo, Alex Sardui, Angel Lertxundi, Katixa Agirre... Musika mundukoak dituzte ezagunenak; literatur arlokoak ezezagunenak. Eta denetan ezagunenak bi: Pello Reparaz eta Itziar Ituño. Aurreikusten zuen nonbait UEMAKo teknikariak, Pello Reparazi Euskal Telebistako *Biba zuek* saioan egindako elkarrizketaren zatiitxo bat jarri baitie. Ingelesez sortuko balute arrakasta handiagoa izango luke-tela iradoki dio Reparazi Mikel Elizegik, eta garbi erantzun dio hark: "Denok modu horretan pentsatuko bagenu, ez ginatke inora joango herri gisa, eta uste dut garrantzitsua dela horretan pentsatzea ere. Ni nafarra naiz, Arbizukoa, eta ZETAK euskaraz sortzea erabaki dut". Gazteek eurek erreferentzetat dutenaren hitzak entzun ondotik galdera pertinentea egin die Aginagak: "Euskaraz gabetzen bagaituzte, zer gara euskaldunak? Zer, Euskal Herria?". Eta isildu dira denak. Euskaldun izatea kontzientzia bat praktikan jartzea ere bada erakutsi nahi izan die gazteei eta ulertu dutela ematen du. Baina ulertzea ez da nahikoa. "Eta, zer ikusten duzue zuen esku? Euskaldunak erronka zaleak gara, eta erronkatzat hartzen baduzue aurrerantzean euskara gehiago egitea?".

Iñaki Astigarraga, 12 urte



“Gurasoak euskaldunak ditut eta etxean euskaraz egiten dugu normalean, baina kalean, lagun artean, gehiago egiten dut erdaraz, eta gurasoek ere bai beharbada. Erdaraz egiten dute lagun guztiek eta kutsatu egiten naute. Iruditzen zait, hori bai, Mendaro herri euskaldunagoa dela Elgoibar baino. Institutuan hasi garenean konturatu naiz Elgoibarren erdaraz egiteko joera handiagoa dutela hemen baino. Gaurko saioa ondo egon da. Ez dakit eraginik izango duen gugan hemen entzundakoak, baina beharbada hemendik denbora batera izan dezake. Mendaron euskara sustatzeko zer egingo genukeen ere galdetu digute. Batetik, guk gehiago egin behar dugu euskaraz, eta bestetik, Udalarri eskatuko nioke euskarazko film gehiago emateko, ‘Aupa Etxebeste’ eta ‘Agur Etxebeste’ esaterako, eta talde euskaldunen kontzertuak antolatzea ere ondo egongo litzateke. Zetak, En Tol Sarmiento, Izaro...”

Irantzu Agirregabiria, 12 urte



“Amak beti esaten dit euskaraz egiteko eta neu ere konturatuta nago erdara asko egiten dugula, baina harritu naiz Ibonek erakutsi dizkigun datuak ikustean. Harritu nau entzutea mendararren %70ek bada-kitela euskaraz, baina hitz egiten dutenak askoz gutxiago direla. Esan du gazteen artean, 15 urtetik 24 urtera artekoetan, %9k bakarrik egiten dutela euskaraz kalean. Oso gutxi da hori, bai. Harritu naiz, baita ere, esan duenean Oñak 10erako eskalan, 8tik 10erako tartean dagoela euskara munduan. Ez nuen uste. Ibonek galdetu digu zeintzuk diren gure euskal erreferenteak Mendaron, eta momentuan ez dut jakin, baina beharbada zu izan zaitezke bat, eta Irati Mendikute eta Andoni Riaño ere bai. Hemen, nire nebak aipatu dituzte. Beharbada guk baino gehiago egiten dute, bai, euskaraz. Ez dakit, baina garbi dago guk behintzat gehiago egin dezakegula. Nik erraztasun handiagoa daukat euskaraz eta ez dakit zerk eramaten nauen erdaraz egitera. Beharbada adina da, baina gaur entzun ditugunak entzunda, ahalegina egin behar dugu lehenengo hitza beti euskaraz egiteko, eta besteek erdaraz egin arren, guk gureari eusteko”.

Ainara Txurruka, 12 urte



“Guk etxean dena egiten dugu euskaraz, eta gurasoen lagunekin ere bai. Musika ere euskaraz entzuten dugu etxean, baina lagunekin nagoenean, erdal taldeen musika jartzen dugu orain gehiago, gure gustuko estiloetan aukera handiagoa dagoelako erdaraz euskaraz baino. Ska gustatzen zait niri asko eta ska estiloan, behintzat, badauzkagu talde oso onak hemen: Skaiketan, En Tol Sarmiento, Vendetta, Esne Beltza... Baina igarri dut Elgoibarrera ikastera joan garenetik erdara gehiago egiten dudala neuk ere lagunekin, nahiz eta erraztasun handiagoa dudan nik euskaraz egiteko eta erosoago aritzen naizen euskaraz. Nik uste dut inguruak ere asko egiten duela. Irakasleek ere esan izan digute Mendaroko ikasleek beti egin dutela Elgoibarkoek baino euskara gehiago baina orain guk ere gutxiago egiten dugula. Eta entzutea ez zitzaidan gustatu. Mendaroko datuak ikusi ditugu eta kezagarriak iruditu zaizkit. Pentsatzen nuen onak ez zirela izango, baina ez nuen uste hain txarrak izango zirenik. Ibonek esan digu besterik ezean erronka moduan hartzeko astelehenetik aurrera euskaraz gehiago egitea, eta kasu egingo diot”.

June Arrizabalaga, 12 urte



“Gurasoak euskaldunak dira eta euskaraz egiten dugu etxean. Eta kalean, lagunartean, normalean erdaraz egiten dugu. Nik uste dut lehenetik datorren kontua ere badela pixkat, baina egia da Elgoibarrera joan garenetik erdara gehiago egiten dugula; entzun ere bai. Harritu naiz eta asko gazteen artean Mendaron euskara zer gutxi hitz egiten den ikustean. Banekien umeek eta zaharrek baino gutxiago hitz egiten genuela gazteok, baina hain gutxi... Urte askoan debekatuta egon zen euskaraz hitz egitea hemen, eta hala ere, gure aittitama mek eutsi zioten euskarari, eta orain, debekurik ez dagoela, ia ez dugu egiten. Horrek pentsarazi dit. Institutuan ere landu dugu gai hau eta zerbait egiten hasi beharko gara, bai, euskara galtzeko arriskuan daukagulako, batzuetan konturatzen ez garen arren. Nik uste dut guk uste duguna baino gehiago eragin duela gugan gaurko saioak. Ibonek galdetu digu zer gustatuko litzazigukeen egitea Mendaroko Udalak herrian euskara suspertzeko, eta ez dakit, baina beharbada euskarazko antzerki saio gehiago eta kontzertuak antolatuko nituzke gazteentzat”.



“Sagarrekin esperimentatzeko lekua da LizagaSar Sagartokixa”

► ASIER LIZARRALDE eta ANE MUNIN EKINTZAILEAK

LizagaSar Sagartokixaren hazia Sallobenteko Azaola baserrian dago. Hantxe, amamaren jaiotetxean, hasi baitzen duela hamar bat urte Asier Lizarralde kuadrillakoekin sagardoa egiten, Zulueta Manuel Almortzaren laguntzarekin. 370 bat litro sagardo botilaratu zituzten estreinako aldi hartan. Eta amesteari ekin zion Lizarralde. Bere gustuko proiektua diseinatu zuen, eta gaur, Ane Muninen laguntzarekin, erdi gauzatua duela esan genezake. LizagaSar Sagartokixa sortu dute eta merkaturatu dituzte lehenengo produktuak ere. Pozik daude izan duten estimazioarekin. Bideoa: [barren.eus](https://www.barren.eus)

- AINARA ARGOITIA -

♦ 31 eta 22 urteko bi gazte sagardogintzan; bi gazte, baserri usainean. Ez da ohikoena beharbada.

Asier: Ez edo. Gure ama Idorbeko Goikoetxe baserrikoa da eta Aita Sallobenteko Azaolakoa, eta ni beti ibili naiz baserrian; beti gustatu izan zait mundu hau. Garai batean, tio Jose bizi zela, Azaolan ere egiten zuten sagardoa, baina nik pare bat urte nuela hil zen Jose, eta ez nuen ezagutu etxean sagardoaren kultura hura. Baserrian obra egin zutenean, gainera, tolaera kendu egin zuten, eta orain, apaingarri daukagu han, kanpoan. Sagastiari eutsi zioten, baina, nahiz eta sagarrak alferrik galtzen ziren edo behi eta ardiek jaten zituzten bestela, lurrera jausitakoan. Eta halaxe hasi ginen gu kuadrillan, sagarrak batu eta Zulueta baserriko Manuel Almortzarekin sagardoa egiten. Sagardo hori saltzen saiatzen

ginen gero, eta ateratako dirua makinak erosteko erabiltzen genuen. Jai batzuk ere antolatu genituen Azaolan, eta batutako dirua proiektuan inbertitzen nuen. Saltsa hartatik sortu da hau, eta afiziotik ofizioa egin nahian ari gara. Ane duela hiru bat urte ezagutu nuen. Azaldu nion zer neukan buruan eta orain bera ari zait laguntzen, zorionez berari ere gustatzen zaiolako.

Ane: Bai, ni Azkubeko baserrikoa naiz eta sagardoaren kultura jaso dut. Lan handia eskatzen du honek, baina gustura ari gara.

♦ Herri sarreratik ere ikusten da LizagaSar Sagartokixa, parez parez, Karakateko magalean. Zalditegia dela, elkarte bat dela, sagardotegia dela... ibili dala jarduna herrian. Zer da?

Ane: Sagartokia. Sagarrekin esperimentatzeko lekua da hau, sagarretik lortu daitezkeen produktuak ekoizteko lekua. Ez da sagar-

dotegi bat; beste filosofia batekin sortu dugu.

Asier: Sagarretik sagardoa atera izan da hemen bereziki, baina irasagarra, sagar-goxokia (sagar dultzea), zukua, ozpina, sagar deshidratatua, Sagardoaz esaten dioten likore destilatua... ere egin daitezke sagarrarekin. Etekin handiagooa atera nahi diogu guk sagarrari. Hiru hektarea pasatxoko sagastia daukagu hemen. Hamabost sagarrondo barietate ezberdin sartu ditugu, eta esperimintatzera goaz.

Ane: Errezil sagarra, Bost kantoia, Goiekoetxea sagarra, Geza mina, Moko sagarra, Mozoloa sagarra, Patzuloa, Txalaka, Udare sagarra, Urdin sagarra, Reina Reineta, Reineta zuria, Reineta gorria, Urtebi handia eta Urtebi txikia dira guk sartu ditugun barietateak, baina gehiago ere sartu nahiko genituzke. Konturatu ginen hemen bertako sagarrondo espezie batzuk oso gutxi sartzen direla eta horiei balioa eman nahi izan diegu. Gure kulturaren berri ematea eta gure produktuen atzean dagoen lana ezagutaraztea da azken batean gure asmoa. Eta hona etortzen direnek horretarako aukera ere izango dute.

♦ **Upategia, sagardoa eta sagarrarekin egindako beste produktuak ekoizteko lekua eta biltegia ikusi ditugu, baita sagastia ere. Baina inguruan obretan ari zarete. Zer beste sortu nahi duzue?**

Asier: Momentuan egiten utzi digutena eta egin ahal izan duguna da zuk ikusi duzuna. Inbertsio handia egin dugu hemen. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu diogu laguntza hau sortzeko eta Gaztenek programatik iritsi zaigu dirulaguntza. Kanpotik biltegi bat ematen du honek eta askok zalditegi itxura ere hartu diote atzetik begiratuta, baina 25 metro luzeko eraikin hau bost zatitan banatuta daukagu barrutik. Erdia inguru elaboraziorako gunea da, eta beste erdia, traktorea eta lurra lantzeko erremintak gordetzeko lekua. Baina hazten jarraitu nahi dugu. Beste pare bat fase-tan gauzatuko dugu proiektua, diru asko behar delako eta inbertitu ahal izan dugun guztia inbertitu dugulako. Baina nahiko genuke bigarren fase batean, hor, beheragoan, eraikin honen dimentsio bereko beste eraikin simetrikotik bat sortzea: upategia eta sagardoa dastatzeko lekua izango dena. Bost bat metroan zulatuko dugu upategia egiteko, eta hara aldatuko ditugu gaur biltegian dauzkagun kupel guztiak. Upategiaren aurrean dastatzeko lekua eraikiko dugu.

Ane: Dastaketarako gune horrek beirategi handia izango du herrira begira, eta ma-haiekin eta proiektore batekin atonduko dugu gela. Bileretarako-eta prestatuko dugu. Inguruko enpresei bezeroekin egin behar dituzten bilerak hemen egiteko aukera eman nahi diegu, Donostiara edo kanpora joan beharrik gabe. Gela hori alokatzeko aukera izango dute hala nahi dutenek, eta guk ha-

maiketakoa-eta emango diegu.

Asier: Sukalde txiki bat ere sortuko dugu gune horretan. Asmoa da egunen batean sukaldariren bat kontratatzea, gure produktuekin otorduak prestatzeko eta esperimintatzeko. Adibidez, ari gara krema katalanaren parekoa sortu nahian, esnearen ordez gure sagar-zukua erabilita. Dena den, hirugarren fase bat ere badu proiektu honek. Hirugarren fasean, upellegiaren gainean produktuak eraldatzeko gunea eraikiko dugu, marmelada, gozo-dultzea eta sagarretik eratorritako beste produktuak han ekoizteko. Osasun ikuskaritzatik gune guztiak ondo berezita egotea agintzen dute, eta horregatik, gaur hemen daukagun dena beheko upategira eta eraldatzeko gunera pasatzeko asmoa dugu, eta gaurko eraikin hau, huts-hutsean, sagarra prentsatzeko eta biltegitzat erabiltzeko.

♦ **Zein bide egin duzue hona arte iristeko?**

Asier: Proiektu mekanikoen diseinua ikasi nuen nik IMHn, marrazketa eta diseinua beti gustatu izan zaizkidalako. Eta hori amaitu nuenean aparejadore karrera egin nuen EHU-n. Mekanizazio mundutik eraikuntzara salto egin nuen, eta Elgoibarko Makina Erremintaren Museoan egin nituen praktikak. Museoa birgaitzen jardun nintzen, eta gero, Ibarrian hasteko aukera iritsi zitzaidan. Sei urte daramatzat Ibarrian, aparejadore eta delineatzaile lanetan. Lanetik irtendakoan etortzen naiz hona, eta hemen sartzen ditut beste ordu denak. Hemen ere sormen, esku-lan, diseinu eta aparejadore-lanak egin ditut nik, eta Anek lagundu dit nire ideiak paperera eramaten.

Ane: Nik Pedagogia ikasi dut, eta orain, masterra egiten ari naiz.

“Gure kulturaren berri ematea eta gure produktuen atzean dagoen lana ezagutaraztea da gure asmoa”

- ANE MUNIN-



Asier Lizarralde eta haren kuadrillakideak 2011ko argazkian. Azaolan estreinakoz sagardoa egin zuten garaiko argazkia da, BARRENEK 711. zenbakian argitaratutakoa.

Orientatzailere izateko praktikekin ari naiz orain eta Atxutxiamaikako 'Aldenik Alden' egitasmoan ere ibili naiz bi urtean.

♦ **Kanpotik ez du ematen hemen horrenbeste gauza sartu daitekeenik. Zer da hau, baina!**

Asier: Dena milimetrora zainduta dago. Neuk egin dut dena, neure gustura, eta upategia ere neure gustukoa diseinatuko dut. Ordu asko sartu ditut hemen, baina gustura nago. Eguzki plakak ere jarri ditut, hori delako gure beste erronketako bat, behar dugun argindarra energia berriztagarriak erabiliz sortzea. Egin dugun sagardo guztia ere, eguzki energia erabilita egin dugu. Laba pizteko gasa erabiltzen dugu, baina hori aldatzea ere badaukat buruan. Lortzen badugu zimaurretik gasa egitea eta horrekin makinak lanean jartzea lorpen handia litzateke guretzat.

Ane: Momentuan ez diogu Iberdrolari ezer ordaintzen, ez. Produktu ekologikoen ziurtagiria ere lortu nahiko genuke. Hiru bat urte beharko ditugu eskuratzeko, bitarte horretan jarraipena egin beharko dietelako gure produktuei ziurtatzeko ez dugula produktu kimikorik erabiltzen. Baina esan diezazuegu ekologikoak direla gure produktu guztiak. Gure erronka hori da: gure produktuak etengabe hobetzea, naturan ez dagoen zerbait gehitu gabe. Adibidez, badakigu marigorrigoak lagun onak direla baratzeetan izurrien kontra egiteko, eta sagastira nola erakarri aztertzen ere badihardugu.

♦ **Zuei entzunda ezingo du esan inork gazte ekintzailerik ez dagoenik behintzat!**

Ane: Errazegi hitz egiten da ekintzailetasunaz eta ekintzailetasun ezaz. 2019an hasi ginen gu hemen, eta ia galdu gara paper kontutan. Zoramena izan da. Gaztenek bidez jarri genuen hau dena martxan. Horretarako, proiektua zehatz-mehatz azaldu behar izan genuen idatziz, arloz arlo. Detaile txikiena ere kontatu behar da, eta proiektua onartu egin behar dizute gero. Urtebete oso bat eman genuen eskaerak egin eta paper artean trabatuta. Nahi genuen irailean hemen hasi sagardoa egiten, baina horretarako dena ondo lotu beharra zegoen, osasun ikuskariak akta sinatu eta sagardoa egiten hasteko baimena emateko. Zoramena izan da. Astunena agirien kontu hori zuzentzea izan da. Orain, motibatuago gaude, aurrera egiten ari garela ikusten dugulako.

Asier: Ikuskatzaileak bata bestearen atzetik etortzen dira hona. Ez dut ulertzen gaur egun dagoen beste aurrerapenekin nola ez dagoen tramite horiek guztiak errazteko modua. Ogasuneko bat etorri zitzaidan aurrekoan eta hark esan zidan botoi bati emanda gure kontu guztiak zituela esku-eskura. Eta gu, sei entitate ezberdinetara joan-etorrian ibili behar izan gara. Foru Aldundira jo genuen lehenengo, eta han, Udalaren obra baimena eskatu ziguten. Baimen hori ez baldin badaukazu, ezin duzu dirulaguntzarik jaso. Hor lehenengo lotura bat. Diru laguntza horrek berak ere lotu gaitu, Aldundiak esan digulako bost urteko epean proiektu osoa gauzatu izan behar dugula eta irabazi batzuk lortuta. Guk mailegu bat eskatu dugu banketxean, eta, orain, zera, batetik daukagu maileguaren presioa, eta bestetik, Foru Aldundiaren lotura hori. Ogasuneko ere etorri da, jakina, eta sagardoa alkoholdu



“Ekintzailetasunaz errazegi hitz egiten da. 2019an hasi ginen, eta ia galdu gara paper kontutan”

- ANE MUNIN-

edaria denez, zerga bereziak ordaindu behar ditugu. Osasun ikuskaria ere izan da hemen plano guztiak hartuta, eta hark agindutakora moldatu behar izan dugu espazioa. Elikagai Industriakoa ere etorri zaigu, bai eta ENEEKoa ere, elikagai ekologikoen ziurtagiriak banatzen dituen erakundekoa. Sei entitate dira, paper ugari eta atzera-aurrera gehiago. Ekintzailetasunaz errazegi hitz egiten du jendeak. Guk eskola dugulako, baina bestela nola sortuko du hemen batek zerbait, bidean galdu gabe? Dena lagatzeko tentazioa ere izan dut momentu askotan. Batzuek esaten didate azkarregi goazela, baina jakingo balute zer nolako loturak jarri dizkiguten... Hemen, gauza batean huts egitea hanka bat galtzea da, laguntzak itzultzera behartzen zaituztelako.

♦ **Hiru hektarea bueltako sagastia daukazu. Kontaguzue: zeintzuk ezaugarri ditu zuen sagastiak?**

Asier: Pandemia hona iritsi baino aste bateko aurretik sartu genituen landareak, traza txarra hartu geniolako zetorrenari. Eta eskerrak! Hamar langile, etxeokak eta gu biok ibili ginen lanean eta bi egu-



“Hiru hektarea t’erdiko sagastian 2.150 landare sartu genituen, hamabost barietatetakoak”

- ASIER LIZARRALDE -

netan 2.150 landare sartu genituen, hamabost barietatetakoak. Orduan sartu ez bagenituen, urtebete galduko genuen!

Ane: Joan zen urtean sartu genituenez arbolak, aurten ez dugu sagarrak jaso eta kanpotik ekarri dugu. Aurten ez da sagar-urtea izan eta larri ibili gara sagarra inguratzeke, baina ekarri dugu Arroatik, Zumaiatik, Azpeitiatik, Bolibartik eta Sorluzetik, bai eta Sallobente bailaratik ere apurren bat. Baserritarrekin tratuan jarduten gara gu. Baserri askotan sagastiak lagata dituzte, sagarrak ez duelako ematen, eta guk tratua egiten dugu jabeekin. Sagarren truke, sagastia garbi mantentzeko konpromisoa agertzen diegu, edo bestela sagarretan jasotakoa sagardotan edo bestelako jenerotan bueltatzen diegu, askok dirua baino nahiago dutelako hori. Lehengo modura ari gara, eta jendeak estimatu digu.

◆ Zer helburu jarri diezue zuen buruei aurtengorako?

Asier: Orain artekoa zoratzekoa izan da, eta erabaki dugu aurtengo urtea hau dena ondo jartzen eta sagastia geure gustura jartzen emango dugula. Sagastia hezten ari gara. Hiru bat urteko

◀ *Asier Lizarralde eta Ane Munin, dolare ondoan.*

lana izaten da sagarrondoei forma ematea. Adar batetik bi adar aterarazi behar zaizkio, eta adar horiei angulo jakin bat eman. Aurten, sagar urtea ere bada, eta guk aleak kendu beharko dizkiegu arbolei, indarra hartu dezaten. Komeni zaiguna da sustraia egitea landareak eta adarrak sendotzea.

◆ Zer esan nahi duzu, zuen kapritxora egindako arbolak dituzuela?

Asier: Oraindik ez, baina horren bila goaz. Aitor Etxeandia ingeniari agronomoak egin zigun diseinua eta Elgoibarko topografo batek, Iratxe Iriondok, markatu zizkigun sagastian 62 ilara, bi metro t’erdira bata bestearengandik, eta zehaztu zigun sagarrondo bakoitza zein puntutan sartu. ilara motzenak 50 bat metro izango ditu, eta luzeenak 120 bat. Ahal dugun guztian aurreztea da gure kontua, eta horregatik dena ondo markatu nahi izan genuen, geroko lan batzuk errazteko. Preparazioan ordu dezente sartu genituen, hondeamakina sartu behar genuenerako dena ondo lotuta izateko. Bi arbola-haztegitatik ekarri genituen 1.150 zuhaitz eta jakina, denak ez ziren neurri berekoak, ezta formazio berekoak ere. Denak berdindu nahian ari gara. V forma eman nahi diegu, ardatz biko arbolak sortzeko.

◆ Arbola bakoitzari sagar kopuru jakin bat emateko eskatzea bakarrik falta zaizue.

Asier: kar, kar: Hori ere egin daiteke..

◆ Ze produktu daukazue?

Ane: Bost produktu daukagu: sagardoa, sagar-zukua, sagar-dultzea, sagar-marmelada eta sagar-purea (konpota antzekoa).

◆ Estrainekoz azokan ere izan zineten otsailean, hil azkeneko zapatuan. Zer nolako harrera izan dute zuen produktuek? Eta non eskura ditzakegu Elgoibarren?

Ane: Oso ona. Nongoak ginen galdezka hurbiltzen zitzaigun jendea azokan, maskarekin ez dagoelako orain inor ezagutzerik. Interesa agertu digu jendeak.

Asier: Momentuan etxex etxeko zerbitzuarekin ari gara, eta hemen bertan ere saltzen dugu. Gaztenekin sartu ginenean bageneukan aukera produktua kantitate handitan ekoitzi eta banatzaileen bidez denda handiei saltzekoa, baina guri bezeroarekin egotea gustatzen zaigu, eta ez dugu hartueman hori galdu nahi. Etengabeko hobekuntzarako aukerak gutxitu egiten dira norbere produktua besteen eskuetan lagata, eta hori ez dator gure filosofiarekin bat. Bestea errazagoa izango da ziurrenik, kanpaina egin eta banaketa lanez ahaztea, baina guk entzun nahi ditugu bezeroen iritziak, produktua hobetzeko. Eurek esango digute ondo ari garen edo ez, eta aldatzekotan zer komeni den aldatzea. Guk bezeroari ere aukera ematen diogu eraman duen sagardoa gustukoa ez badu, bueltatzeko eta beste kupel batekoa eramateko, bezeroak gustura gelditu behar duelako, hurrengo etorriko bada.

Ane: Instagramen eta Facebooken ere badagaude LizagaSar

Sagartokixa izenarekin eta whatsapppe ere jarri daitezkezurekin harremanetan hala nahi dutenek: 620 578 406 / 699 133 939.

◆ Hitz egin dezagun zuen sagardoaz. Azalduko zenigukete prozesua bera?

Asier: Sasoia iristean, egunean 500 bat kilo sagar batzen ditugu, eta egunean bertan hasten dugu prozesua. Guk ez dugu sagarra biltegian egunetan izaten; gure biltegia sagastia da. 1.000 litroko bidoi batera botatzen ditugu sagar guztiak gero, uretan garbitzeko. Handik jaso, pixkat sikatu eta txikitzen botatzen ditugu. Baldeekin jaso eta prentsa hidraulikora botatzen ditugu ondoren, eta hamar zentimetrora, kapatxoa jartzen diogu. Olio egiteko erabiltzen den iragazki naturalari esaten diogu kapatxoa. Hasieran ez genuen kapatxorik erabiltzen, baina gero ikusi genuen kapatxoarekin zuku gehiago ateratzen zitzaiola sagarrari. Hamabi bat kapa jartzen ditugu, eta horrekin lortzen duguna da sagarra ez maspiltzea. Hortik, hodi baten bidez, barriketara botatzen dugu zukua. Kupel herdoilgaitzak erabiltzen ditugu [1.000 litroko sei kupel eta 1.500 litroko bat dituzte]. Zukua irakiten hasten denean, esan nahi da azukrea alkohol bihurtzeko prozesu hori hasten denean, kupel batetik bestera pasatzen dugu sagardoa, zikina kentzeko. Ardogileek erabiltzen duten sistema da. Hor litro batzuk galtzen ditugu, baina uste dugu sagardo garbiagoa lortzen dela.

Ane: Fermentazioa hasten denean, kupel gainetik hasten da bitsa irteten. Gero, kupela itxi, eta ikusten dugunean sagardoa eginda dagoela, botilaratzen hasten gara. Bi-hiru bat hilabetez uzten dugu gero sagardoa botiletan ontzen, ondoren saltzeko. Zukuarekin prozesu bera da, baina behin botilaratutakoan labeaz sartzen dugu hogeit hamar minutuz 80 gradutara, pasteurizatzen. Zukua egiten aurtzen hasi gara.

◆ Eta, zeintzuk izan dituzue prozesu honetan maisu-maistrak?

Asier: Jende asko. Jakin-mina beti izan dut nik neuk, eta eginaren eginez ere ikasi dugu. Hasieran demaseko sagardo txarra egiten genuen, edan ezinezkoa, binagretarakoa. Esan dezakegu, baina, Iñaki Larrarte Astigarragako Larrarte sagardotegikoa laguna dugula eta asko lagundu digula. Baita Viña Olmaza bodegakoek ere (San Vicente de la Sonsierra). Bikote bat dira eta mutila pilota mundutik ezagutzen dut; gure filosofia berarekin ari dira lanean.

Ane: Hemen hasi aurretik sagardotegi eta baserri askotara ere joan ginen galdezka, ikasi nahian. Mugitu beharra dago hemen, halako negozio bat sortu nahi duenarentzat ez dagoelako dena pausoz pauso azaltzen duen eskulibururik. Sagardoarekin ere berdin, probak egin, eta aurrera.

Asier: Hamar urtean hala jardun gara, bai. Probak egiten, esperimentatzen, eta litroak kanilatik behera botatzen. Txorrita zabaldu eta 1.000 litro ere hustu ditugu! 20 urterekin hasi nintzen lagunekin sagardoa egiten, baina hain zen lan handia, aspertu zitzaizkidalda lagunak. Niri gero eta gehiago gustatzen zait, baina. Sagardoa bera ere bai. Eguneroko botila bat husten dugu Anek eta biok.



“Ez dugu sagarra biltegian egunetan izaten; gure biltegia sagastia da”

- ASIER LIZARRALDE -

◆ Botilaratutakoa noiz jartzen duzue saltzen?

Asier: Hilbeheran botilaratzen dugu guk sagardoa. Sagardoa produktu bizia da, eta belarria kupelaren kontra jartzen baduzu, entzun ere egingo duzu zarata, bizirik dagoen seinale. Botilaratzean, hala ere, galdu egiten du apur bat bizitasun hori, baina gero, beste fermentazio txiki bat izaten du botilan, eta ontzen hasten da. Bi-hiru hilabetera prest dago saltzeko. Geuk probatu eta erraz edaten dugula ikusten dugunean hasten gara saltzen.

◆ Hau ez da amaitu. Beste bi fasetan gauzatu nahi duzue proiektu osoa, baina zuen buruetan ideia gehiago ere badabiltza dantzan. Zerbait aurreratzerik bai?

Asier: Beste proiektu batzuk ere badauzkagu buruan, bai. Ane Kortaberriak zerbait aurreratu zuen BARRENIEN, baina nahiko genuke sagardo dastaketak antolatu hemen, haimaketakoak eman, umeentzako aisialdi eskaintza bat sortu sagarraren bultzatzen... Abatetxe nekazaritza etxeok ere hitz egin dugu, kanpotik datozen bidaiariei hau ezagutzeko bidea emateko. Guk aukera ikusten dugu hona datorren bezeroari Elgoibar erakusteko, herriko beste eragile batzuekin elkarlanean jardunda. Nekazal etxeak ere baditugu inguruan, museo erakargarriak, ostalaritza sektore indartsu bat eta inguru natural eder bat ere bai. Horiek guztiak lotu eta Elgoibarko aukerak aurkeztu nahiko genizkieke bezeroei. Kostaldean bakarrik ez; barrualdean ere badaukagu zer ikusi-eta.

"Herri bat miniaturan egitea zen ideia, herri batek eduki ahal dituen eraikin garrantzitsuenekin. Denen artean diseinatu eta egindako herria da, birziklatutako kartoiak erabiliz egindakoa. Aurkezpen hau collage moduan editatuta dago, plano formatoan."

Egur arte tailerreko umeeek egindakoa.



160.000 euro jasoko ditu Elgoibarko Izarrak Udaletik, euskararen erabilera sustatzeko eta haurrentzako aisia eskaintza finantzatzeko

Elgoibarko Udalak 160.000 euroko dirulaguntza emango dio aurten Elgoibarko Izarra elkarteari, iaz baino 24.000 gutxiago.

Asteazkenean sinatu zuten lankidetzeta hitzarmena Elgoibarko Udaleko alkate Ane Beitiak eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneko presidente Iñaki Kondek, udaletxean. Ekitaldian, Maialen Gurrutxaga Euskara eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen arloetako zinegotziak, Amaia Lasagabaster Elgoibarko Izarrako kudeatzaileak eta Kristina Zuatzubizkar eta Maialen Aranguren Udaleko Euskara eta Gazteria sailletako teknikariek ere parte hartu zuten. Hitzarmen horren arabera, Elgoibarko Izarrak 160.000 euro jasoko ditu, euskararen erabilera



sustatzeko eta haurrentzako aisia eskaintza finantzatzeko. Azkeneko urteetan bezala, dirulaguntza hori bi udal sailletatik bideratuko da. Euskara Sailetik jasoko ditu 100.000 euro eta gainerako 60.000 euroak Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailetik.

Bi erakundeek lankidetzan jarraitzeko asmoa agertu zioten elkarri. Izan ere, Elgoibarko Izarraren ustez, "ezinbestekoa" da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, haurrentzako aisia hezitzaileko eskaintza osatu eta Elgoibarren euskara eta euskal kultura sustatzeko.

Elgoibarko Izarrak udaldirako hezitzaileak behar ditu

Elgoibarko Izarrak udaldirako hezitzaileak behar ditu, eta apirilaren 8ra arte egongo da lan poltsan izena emateko aukera. Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea eskatzen dute, ahozko euskara maila handia izatearekin batera. Era berean, honakoak baloratuko dituzte: aisialdian lan-eskarmentua izatea, Elgoibarkoa izatea eta espezializazio ikastaroak eta herrigintzan jardundakoa izatea. Hautagaiak frogatu egin beharko dute, eta hautaketa-sistemaren irizpideen arabera merituen arabera baloratuko zaizkie. Frogatu hori hiru egunetan egingo dute: apirilaren 22an, goizez; 23an, arratsaldean, eta apirilaren 24an, goizez. Hautatuak oinarriko prestakuntza-asteburu batean parte hartu beharko dute maiatzaren 15ean eta 16an. Curriculumak www.elgoibarkoizarra.eus webguneko lan-poltsan sartu behar dira. Informazio gehiagorako: kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus edo 943 741 626 / 643 499 169.

30.300 euroko dirulaguntza emango dio Mendaroko Udalak Elgoibarko Izarrari



Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentek eta Iñaki Arregi Mendaroko alkateak gaur goizean sinatzekoa zuten 2021eko lankidetzeta hitzarmena. Aurten 30.300 euro emango dizkio Udalak kultur elkarteari bi egitasmoren finantzaketan laguntzeko: 15.500 euro emango dizkio BARREN astekariarentzat eta 14.800 euro emango dizkio Mendaroko udalekuak kudeatzeko.

Udalekuak

HH3tik LH6ra arteko haurrentzako udaleku irekiak eskainiko dituzte aurten ere udan, ekainaren 21etik uztailaren 16ra. Izena emateko epea apirilaren 26tik maiatzaren 9ra izango da, eta plazak mugatuak izango dira.

AEK-ren 'Bultza euskaltegiak-bultza euskara' dinamikaren barruan ekitaldia egingo dute domekan Maalako parkean

Pandemiagatik izan ez balitz, Korrika izango genuen aurten, baina AEK-k urtebetez atzeratzea erabaki zuen euskararen aldeko lasterketa, ezinbestean. Korrika, baina, ez da euskara sustatzeko lasterketa hutsa; AEKrentzat finantzaketa iturri garrantzitsua ere bada, eta galera hori leuntzeko *Bultza euskaltegia! - bultza euskara!* dinamika abiatu dute. Horren barruan ekitaldiak antolatu dituzte Euskal Herriko hainbat herritan domekarako, aurtengo Korrika amaituko zen egunerako. Elgoibarren. Maalako parkean egingo dute ekitaldia, 12:00etan hasita. Bertsolari batek emango dio hasiera ekitaldiari, eta hura kantuan ari dela marrazkigile bat irudi bat sortzen hasiko da. Ondoren, AEKren mezua irakurriko dute, eta bertso-ropa entzungo dute gero. 12:15ak aldera, *Euskal Herrian euskaraz* kantua abestuko dute, eta ondoren, talde-argazkia aterako dute. Ekitaldia bertsolariaren agurrarekin amaituko dute. AEKtik jakinarazi dute 60 lagun jartzeko lekua izango dela.

Dinamika honen barruan, beste ekintza batzuk ere egingo dituzte: Batetik, gutun bana bidaliko diete Euskal Herriko administrazio nagusiei, euskalduntze prozesuaren normalizazioan pausoak emateko garaia dela gogoraraziz. Eragileekin ere lan egingo dute, eta akuilu-lana egiteko eskatuko diete norik bere eremuan, uste dutelako eragileek paper garrantzitsua jokatzen dutela. Herritarren babesia eta ekarpena ere eskatuko dute, jendartearen arnasa ere ezinbestekoa dutelako, eta horretarako diru bilketa kanpaina bat hasiko dute martxoaren amaiera aldera.

Euskara Eskolak antolatu dituzte Mendaron

Hutsetik euskara ikasten hasi nahi dutenentzako ikastaroa jarriko dute martxan Mendaroko Udalak, UEMAk eta Arno Guraso Elkarateak elkarlanean. Gehienez 12 ikaslerentzako lekua izango da eskoletan, eta izena emandakoen hurrenkaren arabera osatuko dute taldea. Mendaron erroldatuta daudenek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta Mendarotik kanpokoentzako prezioa 20 eurokoa izango da. Interesatuak martxoaren 31 arteko epea dute izena emateko. Harremanetarako: kultura@mendaro.eus / 943 033 282 / 685 720 010.

'FutbolisTOK' bakarrizketa emango du Zuhaitz Gurrutxagak Herriko Antzokian

Zuhaitz Gurrutxagak *FutbolisTOK* bakarrizketa aurkeztuko du apirilean Herriko Antzokian, eta dagoeneko sarrerak salgai daude Kutxabank plataformaren bitartez. Bi emanaldi egingo ditu, apirilaren 9an euskaraz eta astebete beranduago, 16an, gaztelaniaz. Ikuskizun honetan, *Futbolisto baten Konfidentziak*, bere lehen bakarrizketako hainbat pasarte berreskuratiko ditu eta azken 2 hamarkadetan, goi mailako futbolearen, umoregintzan, teledistan, antzerkian nahiz musika munduan bizi izan dituen beste hainbat esperientziataz arituko da, eta horrez gain, bere azalean bizi izan duen TOK (Trastorno/Nahasmendu Obsesibo-Kompulsiboa) eritasuna ere izango du hizpide. Hori guztia, umoretik landuko du, arazoak gainditzeko norik bere buruaz barre egitea baino modu aproposagorik ez dagoela erakusteko asmoz.



Bertso saioa antolatu du Mendaroko Udalak iganderako

Pandemiagatik izan ez balitz, euskararen alde Korrika egiteko egunak izango genituzke hauek. Domekan amaituko zen 2021eko Korrika, eta egun horretarako, bertso saioa antolatu du Mendaroko Udalak, egin izan ezin den Korrikaren harira. Frontoian egingo dute bertso saioa, 12:00etan, eta sarreretan batzen duten dirua AEKrentzat izango dela jakinarazi dute Udaletik. Sarrerak 2,5 euroan salduko dituzte Morroskillon. Beñat Gaztelumendi eta Oihana Arana arituko dira bertsoetan, eta Ane Ezenarrok egingo ditu gai jartzaile lanak. "Helburua da, Korrikarik gabe ere, ekimen horren mezu nagusia zabaltzen eta indartzen jarraitzea, helduen alfabetatze eta euskalduntzearen garrantzia azpimarratuz", azaldu dute Udaletik.



LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan eta asteburuetan, kontratuarekin. Arduratsua naiz eta esperientzia daukat.

☎ 632 355 103

Nagusiak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Arduratsua naiz, eta eskarmentua eta beharrezkoa den titulua ditut. ☎ 632 49 06 49

Adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Arduratsua naiz. Eskarmentua daukat eta titulazioa ere bai.

☎ 632 935 970

Adinekoak zaintzeko eta portalak garbitzeko prest nago. Euskalduna naiz.

☎ 617 571 210

Edozein lan egiteko prest nago. Malgutasun handia daukat. Etxeko langile moduan aritzeko ere prest nago.

☎ 632 116 534

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, aste barruan. Ordutegi malgua daukat.

☎ 612 531 623

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan, orduka zein asteburuetan. Berehala lanean hasteko moduan nago.

☎ 602 850 826

Adinekoak, umeak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prest nago. Papelak legez ditut eta esperientzia daukat. Tabernan sukaldari laguntzaile moduan ere aritzeko prest.

☎ 666 197 831

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta erferentzia onak dauzkat.

☎ 626 490 986

Eskaintza

Emakume euskalduna behar da baserrian emakume nagusi bat zaintzeko. Autoa izatea hobesten da.

☎ 661 023 445

Taberna batek janaria etxeetara eramateko langileak behar ditu.

☎ 680 489 416

GARAJEAK ETA LOKALAK.....

Lokala alokatzen dut Ermuaranbide 20, behean. 106m², argia, ura, komuna eta lursail zati bat ditu.

☎ 670 406 748

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu.

Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.
Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, martxoaren 28an, **ordubetez aurreratu beharko** da ordularia; 2:00etan 3:00ak izango dira.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Finantza Administrazioen Erakunde Komunitarioa



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Garaje plaza eta trastelekua dituen pisu bat erosi berri dut. Trastelekua eta garajea modu independentean sal ditzakedan edo etxebizitzarekin batera saldu behar dudan jakin nahi nuke.

Jabetza horizontalean banatutako eraikin bati dagozkion garaje- edo trasteleku-plazak finka independente gisa edo pisu edo lokal baten mendeko eranskin gisa har daitezke Eratzeko Tituluan.

Finka independente gisa definituta badaude, tituluaren zehatz-mehatz deskribatu beharko dira, hurrenkera-zenbaki bat, mugak eta abar finkatuta. Kasu horretan, saltzeko izapideak eta eraikina osatzen duten beste higiezinak saltzeko beharrezkoak direnak ez datoz bat.

Bigarren kasuan, garaje edo trastelekua eranskin gisa agertzen bada, edo elementu osagarri bat bada, higiezinarekin batera bakarrik eskualdatu ahal izango da, eta azken horretatik elementu banaezina da, juridikoki biak unitate bat baitira. Kasu horretan, salmenta konplexuagoa da, eta, gauzatu ahal izateko, finka independente gisa eratu beharko da. Beraz, banaketa horrekin, banaketa horizontalaren eskritura aldatzen da, eta horrek jabeen aho bateko babesa eskatuko du.

GOMENDIOA: Jabetza-eskritura aztertutako beharko duzu, eskuratutako propietateak zein egoeratan dauden egiaztatzeko, eta, horrela, propietate horien balizko salmenta kudeatu ahal izango du.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak apirilaren 7ko (eguztana) eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Gure udaberriko larrosak dagoneko 9 urte zoragarri! Zorionak **June**, familia osoaren partetik.



Zorionak, **Intza**, astelehenean 4 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat familia osoaren partez.



Zorionak, **printzesa!** Dagoeneko 8 urte! Zeinen azkar pasatzen den denbora! Muxu potolo bat etxekoan, eta bereziki, Julenen eta Anderren partez.




Zorionak, **Martin**, martxoaren 24an 9 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Martin!** Igandean 4 urte bete zenituen! Muxu potolo bat.



Zorionak **Amaia, Ane** eta **Miren!** Besarkada bat etxeko guztien partez!



Zorionak, **Danel!** Ez dago zu geldituko zaituenik! Muxu handi bat familiakoan partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€ Argazki bikoitza: 7€ Hirukoitza: 9€
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€ Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Jaso nahiko al zenituzke ELGOIBARKo eta MENDAROKo berriak zure e-postan?

Harpidetza nola egin behar duzun jakiteko, sartu barren.eus-en eta egin klik 'Nor Garen' atalean. Bertan topatuko dituzu azalpen guztiak.

EXPRESS ESKAINTZAK!

COMBI BALAY 3KFE563MI HOZKAILUA

659 €

A T G E

- Aztamen aurkako altzairu matea.
- EZ FROST: Bai.
- 1860 mm x 600 mm.
- Hozkailuaren atea eskuinerantz irekitzen da.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

26 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak. Jubilatuen biltokian. 623 328 408 telefonoan hartu behar da txanda, 15:00etatik aurrera.

19:00 Zine foruma: 'Las Bostonianas'. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

27 ZAPATUA

9:00 Martxoko azken zapatuko feria.

28 DOMEKA

12:00 'Bultza euskaltegiak-bultza euskara' dinamika. Bertsolariak, musika eta talde argazkia, Maalako parkean.

12:00 'Bultza euskaltegiak-bultza euskara' dinamikaren barruan, bertso-saioa Mendaron, frontoian. Sarrerak salgai, 2,5 euroan, Morros-killon.

9 BARIKUA

18:30 Argazki erakusketa: 'Universo bosque'. Ongarri argazkilari taldeak antolatuta, Jesus Rocandioren argazkiak. Apirilaren 24ra arte.

19:00 Bakarriketa: 'FutbolisTOK'. Zuhaitz Gurrutxagak aurkeztuko du, Herriko Antzokian. Euskaraz.

Aste Santuko mezak San Bartolome parrokian

MARTXOAK 28, Erramu igandea
11:30 Meza. Prozesiorik ez da egongo. Bedeinkatzeko erramua norberak eraman beharko du etxetik.

MARTXOAK 29, Astelehen santua
19:00 Talde-penitentzia (euskaraz).

MARTXOAK 30, Martitzen santua
19:00 Talde-penitentzia (gaztelaniaz).

APIRILAK 1, Eguen santua
19:00 Jaunaren afariko meza.

APIRILAK 2, Bariku santua
10:30 Gurutz Bidea
17:00 Jaunaren nekaldiko ospakizuna.

APIRILAK 3, Zapatu santua
19:00 Pazko gaubeila. Bedeinkatzeko kandelak etxetik eraman behar dira, ez dituzte elizan banatuko.

APIRILAK 4, Jaunaren piztuerako pazko domena
11:30 Meza. Prozesiorik ez da egongo.

OHARRA: Parrokiako aforoa 167 lagunekoa da, apaiza eta laguntzaileak barne.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

| 26 BARIKUA | 27 ZAPATUA | 28 DOMEKA |
|-----------------------------------|-----------------------------------|-----------------------------------|
| Egunez *Ibañez | Egunez Garitaonandia | Egunez Garitaonandia |
| Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Garitaonandia |
| 29 ASTELEHENA | 30 MARTITZENA | 31 EGUAZTENA |
| Egunez Arriola | Egunez *Fernandez | Egunez Yudego |
| Iluntzean Arriola | Iluntzean Etxeberria | Iluntzean Yudego |
| 1 EGUENA | 2 BARIKUA | 3 ZAPATUA |
| Egunez Arriola | Egunez Arriola | Egunez Barrenetxea |
| Iluntzean Arriola | Iluntzean Arriola | Iluntzean Barrenetxea |
| 4 DOMEKA | 5 ASTELEHENA | 6 MARTITZENA |
| Egunez Barrenetxea | Egunez Barrenetxea | Egunez Arriola |
| Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Arriola |
| 7 EGUAZTENA | 8 EGUENA | 9 BARIKUA |
| Egunez *Fernandez | Egunez Yudego | Egunez *Oruesagasti |
| Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Yudego | Iluntzean Garitaonandia |

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912

Zinea (Herriko Antzokian)

'Y llovieron pájaros'

26 barikua: 19:00
27 zapatua: 19:00
28 domeka: 19:00
29 astelehena: 19:00

'Barry, el rey de la disco'

28 domeka: 16:30

'Solo las bestias'

1 eguena: 19:00
2 barikua: 19:00

'Raya y el último dragón'

3 zapatua: 16:30
4 domeka: 16:30

'El agente topo'

3 zapatua: 19:00
4 domeka: 19:00
5 astelehena: 19:00

LAN-DEIALDIA

Udaldirako hezitzaileak behar ditugu

ESKATZEN DA:

- Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea.
- Ahozko euskara maila handia izatea.

BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Espezializazio ikastaroak egin izana.
- Hezkuntza Premia Behar Bereziatako ikasketak nahiz esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- Hautagaiek proba bat egin beharko dute eta hautaketa-sistemaren irizpideen araberako merituek ere baloratuko zaizkie.
- Datak: apirilaren 22an, goizez; apirilaren 23an, arratsaldean eta apirilaren 24an, goizez.
- Hautatuek oinarritzko prestakuntza-asteburu batean hartu beharko dute parte maiatzaren 15ean eta 16an.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
Apirilak 8, osteguna

Non eta nola:

- + www.elgoibarkoizarra.eus
- + 943 741 626 / 643 499 169
- + kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus



Bidali zuen udaberriko argazkiak eta irabazi Errigorako otarra!



Udaberriko argazkien bilduma osatzeko zuen argazkiak behar ditugu.
Argazkiak bidaltzen dituzuen guztion artean Errigorako bi otar
zozkatuko ditugu. Gehienez hiru argazki bidali daitezke pertsonako.
Zehaztu izen-abizenak eta argazkia ateratako lekua.



Azken eguna: apirilak 11



Argazkiak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus /  688 634 044



Edukiontzian EZ bota plastikoz egindako edozer gauza
ONTZI ARINAK BAKARRIK

Azken hilabeteetan, edukiontzian hondakin desegoki ugari atzeman dira eta horrek arazoak eragin ditu birziklatze-prozesuan.



Plastikozko eta beste materialetako objektuak

Etxeko tresneria, tupperak, txartelak, lonak...

Garbitasun pertsonaleko produktuak

Eskola eta ofinako materialak

Iraungitako sendagaiak eta ontziak

Tresna elektroniko eta kableak



ONTZI ARINAK BAKARRIK
plastikozkoak, latak eta briak

